

KILOMETROAK 2006 >

# Euskara gizartearen arlo guztietara hedatzeko beharra dagoela uste dute erakundeek

IKASTOLEN PROIEKTUAK AURRERA EGITEKO **BALIABIDEAK FALTA DIRELA DIO HAURTZAROK**

Ahaldun Nagusiak euskaraz hitz egitearen garrantzia aipatu zuen atzo, eta Batasunak hizkuntza politika salatu zuen

tan ere horrela izan dadin”, esan zuen. Juanjo Agirrezabalak esan bezala, Ahaldun Nagusiak ere herritarrek euskara erabiltzea “ezinbestekoa” dela azpimarratu zuen.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko lehendakari den Ramon Zubizarretak zorionak eman zizkien ardura-dunei, eta ikastolek “punta-puntako hezkuntza eredu” eskaintzen dutela adierazi zuen. Eragile sozial ezberdinen inplikazio handiagoa ere eskatu zuen euskararen inguruan.

**HIZKUNTZA POLITIKA** Batasunaren izenean Karmele Aierbek hitz egin zuen. Gaur egungo hizkuntza politikak “ez duela balio” aipatu zuen, eta “gutxiegi” zela Euskal Herria eta eskolak euskalduntzeko. Aierberen hitzetan, “eleanitzak izateko, hizkuntzen arteko berdintasuna beharrezkoa da eta euskaldunon eskubideak ere aitortu behar dira”.

Azkenik, Udalbiltzako Loren Arkotxak atzoko eguna “konpromiso zaharrak berresteko eta berriak hartzeko momentua” zela esan zuen. >I.M.



Intxixua, aurtengo Kilometroetako maskota.



Erraldoi eta kilikiak.

aldiz, erdizka bete zen eta Lanbarraren ia hutsik egon zen. Eguerdian partean 9.000 aparkaleku zeuden hutsik, “ez jende gutxi etorri delako, etorri direnen artean gehienek garraio publikoa erabili dutelako baizik”, esan zuten antolatzaileek. Autoa gutxiago erabiltzearen ondorioz, errepideetan ere ez zen aparteko arazorik izan, nahiz eta A-8 autobidea itxita egon zen egun osoan zehar; Oiartzungo sARBIDEAK ez baitira nahikoa handiak hainbesteko auto kopuruari aurre egiteko.

Pozik bai, baina aurreikuspenak hausteak arazoak sortu zituen txoznetan. Espero baino janari gehiago kontsumitu zen eta eguerdi partean gehiago eskatu behar izan zuten zenbait gunetan. Ura-ekin ere antzeko zerbait gertatu zen, postu batzuetan 12.00etarako amaitu baitzen.

**BERGARAREN TXANDA** Oiartzungo herriak ez ezik, Bergarak ere bazuen zer ospatu atzo, 2007ko Kilometroak antolatzeko lekukoa jaso baitzuen Aranzadi Ikastolak. Gaurtik hasita, urtebete izango dute 2007ko urriko lehenengo igandeko jaialdia prestatzeko. Dena den, dagoeneko aukeratu dituzte jaiaren irudia eta leloa: argi daukagu. Irudiak bonbillaren haria irudikatzen du. AZK diseinu taldearen hiru proposamene-tatik aukeratutakoa da, eta hori izango da Kilometroak festaren materialean inprimatuko dena. Eraikinean beharrezkoak diren zenbait berrikuntza egiteko erabiliko dute dirua.

sortzearena zen. Horretarako edalontzi berrerabilgarrien sistema erabili zuten, eta berrikuntzarik arrakastatsuen dela uste dute. Haurtzaro Ikastolako arduradunen hitzetan, “zabor bolumena ikaragarri gutxitu da; lurrak ez zuten beste aldi batzuetako zikin itxurarik, eta bilketa ere dezente erraztuko du”.

Antolatzaileek garraio publikoa erabili izana ere eskertu nahi izan dute. Euskotren, Herribus, Renfe eta herrietako autobusak erabiltzeak asko erraztu zuen aparkalekuetako lana. Hain zuzen, lekua soberan egon zen egun osoan zehar. Ugaldetxo eta Mamut guztiz bete ziren, baita Taiala industrialdekoa ere. Carrefourrekoa,

OIARTZUN. “Euskara eta ikastolak herri proiektuak izan dira eta dira, eta oraindik ere herritarren bultzada behar dute”, adierazi zuen atzoko Kilometroak jaialdiaren irekiera ekitaldian Arantxa Manterola Haurtzaro Ikastolako lehendakaria. 40 urteko ibilbidean, “kalitatezko hezkuntza” eskaini dutela esan zuen, baina proiektuarekin jarraitzeko ezinbestekoa zela baliabide egokiak izatea. Aurrera begira duten erronka nagusia, eraikin berria egitearena, atzoko jaialdian lortutako diruarekin egitea espero dute, baina hori eraikitzeko lur eremua behar dutela eta, Oiartzungo Udalaren inplikazioa ere eskatu zuen Manterolak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak ere izan ziren.

Juanjo Agirrezabala Hezkuntza Berriztapenerako zuzendariak azaldu zuenez, “gaurko egoeran ikastolatik gizartera, herrira, kalera eta beste hainbat lekutara ekarri behar da euskara”. Halaber, euskaldun bakoitzaren “erantzukizuna eta ardura” azpimarratu zituen, euskara eguneroko bizitzara eramateko. “Ezin dugu egun bakar bat ere galdu, euskaraz bizitzeko asmoari aukerarik eman nahi badiogu etorkizunean”, esan zuen.

Gipuzkoako Ahaldun Nagusia den Joxe Joan Gonzalez de Txabarrak ere egin zituen atzoko jaialdiaren inguruko adierazpenak. “Mundu osoko ondare linguistikoaren %40 galtzen ari den honetan, euskarak bizirik dirau, eta lanean jarraitu behar dugu hurrengo belaunaldie-



Ramon Zubizarreta, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko lehendakaria.



PROGRAMACION ▶

Hoy a las 21.30h  
Mikel Abascal entrevistará a  
**RAKEL PEREZ Y WILI BARBIER**

Si todavía no nos ves, llámanos al tlfno  
902 25 55 55

**LOCALIA**